



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Gernika eta Polonia bateginik, memoria historiakoaren alde

- Erresistentzia poloniarreko mugimentu nagusien ordezkariak bisitari Gernikako Batzarretxean. Eskaintza bat egin dabe alkarrizketaren eta totalitarismoaren biktimen alde.

Gernikan, 2015eko uztailaren 27an

Nazismoaren eta estalinismoaren aurkako erresistentzia poloniarreko mugimentu nagusien ordezkariak izan dira Gernikako Batzarretxean arrasti honetan. Tomasz Otrebski-k eta Robert Springwald-ek memoria historikoa berreskuratzeko lanetan dihardue Polonian. Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak harrerea egin deutse Bizkaiko legebatzarraren egoitza nagusian.

Otrebski jaunak (Tadeusz Kosciuszki Heroiaren Fundazio Historikoaren presidentea, Kulturaren Nazino Merezimentuko Kurutzearen jabea eta Memoria Historikoaren Jagolea da) eta Springwald jaunak (Fundazio horren presidenteorde eta Krakoviako Armia Krajova (AK) — Bigaren Mundu Gerran erresistentzia poloniarreko gudarostea — Museoko historialaria da) Gernikan egozala-ta, bisitaldia aprobetxatu gura izan dabe eta omenaldia egin deutse totalitarismoaren biktimei. Gernikako Haretxaren gerizpean, eskaintza egin dabe alkarrizketaren eta herrien arteko adiskidetzaren alde, belaunaldi barrietan tolerantzia suspertzearen aldeko apustua eginez.

Asociación Pro Tradición y Cultura Europea (APTCE) deritxanak konbidaturik etorri dira Euskadira. Alkarte hori Europako Batasunean erakundeak senidetzea bultzatzen dauen kultura-plataforma da. Euskadin zehar egin daben ibilbidean, Gernikako Batzarretxeko Ohorezko Liburuan sinatu ostean, lan-jardunaldia izan dabe Bakearen Museoa eta Sabino Arana Fundazioan.

Topaketa horreek, bada, Tadeus Kosciuszki Fundazioagaz eta Krakoviako Armia Krajova (AK) Museoagaz loturak sendotzearen aldeko apustuaren esparruan kokatu behar ditugu, memoria historikoa berreskuratzaren arloan Polonian pisu handiko erakundeak dira-ta.

Topaketa horretan izan da be Asociación Pro Tradición y Cultura Europea (APTCE) deritxanaren presidentea, Enrique de Villamor y Soraluze bizkaitarra hain zuzen. Villamor jauna Poloniako Kultura Merezimentu Nazionaleko Kurutzeagaz eta SZZAK-ek (erresistentzia poloniarra) emondako Merezimentuaren Kurutzeagaz saritua izan da. Bera izan da lehen topaketa honeen bultzatzailea, Bizkaia eta Polonia zuzenean lotzen dituen kultura eta historia biren arteko lankidetzaz, zabalkundea eta sustapena helburu dirala.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

NOTA DE PRENSA

Gernika y Polonia unidos por la memoria histórica

- Miembros destacados de la resistencia polaca visitan la Casa de Juntas de Gernika y realizan una ofrenda por el diálogo y las víctimas del totalitarismo.

Gernika, a 27 de julio de 2015.

La Casa de Juntas de Gernika ha recibido esta tarde la visita de una destacada representación de los movimientos de resistencia polacos antinazis y antiestalinistas. Tomasz Otrebski y Robert Springwald, personas vinculadas hoy a labores de recuperación de la memoria histórica en su país, han sido recibidos en la sede parlamentaria vizcaína, por la Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui.

Otrebski, Presidente de la Fundación Histórica Héroe Tadeusz Kosciuszki y Cruz al Mérito Nacional de Cultura y Guardián de la Memoria Histórica, y Springwald, vicepresidente de esta fundación y, a su vez, historiador del Museo Armia Krajowa (AK) - Ejército de la Resistencia polaca Segunda Guerra Mundial - , han aprovechado su visita a Gernika, para rendir homenaje a las víctimas del totalitarismo. Bajo la sombra del Árbol de Gernika han realizado una ofrenda por el diálogo y la reconciliación de los pueblos, apostando por el fomento de la tolerancia en las generaciones más jóvenes.

En su periplo por Euskadi invitados por la asociación APTCE (Asociación Pro Tradición y Cultura Europea), plataforma cultural europea que fomenta el hermanamiento institucional en la UE, los polacos han acudido también a una jornada de trabajo en el Museo de La Paz y en la Fundación Sabino Arana, después de firmar en el Libro de Honor de la Casa de Juntas.

El encuentro se enmarca en la apuesta conjunta por crear lazos de colaboración para realizar proyectos con la Fundación Tadeusz Kosciuszki y el Museo Armia Krajowa (AK) de Krakovia, instituciones culturales de mucho peso en Polonia en el campo de la recuperación de la memoria histórica.

En la cita, ha estado presente también el Presidente de APTCE, el vizcaino Enrique de Villamor y Soraluze, premiado con la Cruz al Mérito Nacional de Cultura en Polonia y con la Cruz al Mérito del SZZAK (resistencia polaca), que ha sido el promotor de este primer encuentro de colaboración, difusión y promoción de las dos culturas e historia común, que conecta directamente Bizkaia con Polonia.